

«XIX. mende hasieran, Bolivar bera baino arriskutsuagoa izan zen Xabier Mina Espainiako Gobernuarentzat»

Kepa Larrea Idazlea.

Historiak luzaroan isildutako Xabier Mina gerrillari nafarraren biografia ezagutarazi du bi saiakera lanetan

ELKARRIZKETA

IRAITZ URKULO

Xabier Mina Nafarroako Otano herrian jaio zen 1789an, Frantziako Iraultzaren bezperan. Euskalduna, liberala eta errepublikanoa izanik, Nafarroan mila gizonoko gerrillari talde baten buru aritu zen Frantsesetan eta, jeneral izendaturik, insurjenteen armada oso bat gidatu zuen Mexikoko Independentzia Gerran. Herrialde hartan fusilatu zuten Fernando VII.aren soldaduek, 1817an, artean hogeita zortzi urte baino ez zituela. Espainiako historialariek haren balentriak isildu zituzten; Mexikon, aldiz, maila goreneko heroi bilakatu zen. Izan ere, Xabier Mina askatasunaren alde borrokatu zen beti, eta herrialde horrek gerrillari liberal nafarra hil eta lau urtera lortu zuen independentzia. Kepa Larrea saiogileak, historiaren zirrikietan barneratu, eta Xabier Minaren pausoen atzetik abiatu da 'Biba Mina! Kontuak eta kantuak' eta 'Mina edo libertatea' liburuetan (Pamiela, 2017).
-Zergatik aukeratu zenuen Xabier Mina?
-Duela urte batzuk Amerike-

tan ibilitako euskaldunei buruzko informazioa biltzen ari nintzen, eta halako batean Xabier Minarekin egin nuen topo. Espero ez nuen pertsonaia zen, eta jatorri umileko hura zenbat eta sakonago ezaugu orduan eta gehiago erakarri ninduen: nafarra, ikasia, euskalduna, unibertsala.

-Liburu bakarrarekin nahikoa izan ez, eta bi idatzi dituzu.


-Batak bestera eraman ninduen, halabeharrez. Bata saiakera biografikoa da, eta bestea, biografia hori bera, baina fikzionatua. Ezin nituen bi kontakizunak liburu bakar batean nahasi. Azken batean, fikzioak kontatzen du Minaren bizipenak nola irudikatzen ditudan. Aitzakia bat da maitasunaz, traizioaz, heriotzaz, lagunez eta etsaiez hitz egiteko.

-XXI. mendera arte Espainiako historiagileek Xabier Minaren ingurukoak isildu edo gaitzetsi egin dituzte. Zergatik?

-Horixe galdetu nion neure buruari. Nahikoa da inguruari erreparatzea; Noingo kale berri batean izan ezik, Xabier Minak ez du kalerik, ez plazarik, ez estatuarik penintsula osoan. Alabaina, Mexikon heroizat dute, Independentziaren monumentuan lurperatuta dago eta. Mina gakoa da XIX. mendearen hasierako gertaerak ulertzeko.

-Hainbat gertaera historiko garrantzitsutan parte hartu zuen.

-Napoleonen kontra borrokatu zen Nafarroan, Fernando VII.aren aurka altxatu zen Iruñean eta insurjenteen alde le-



Larrea historialaria, filologoa eta idazlea da. :: MIREYA LÓPEZ

rratu zen Ameriketara, hau da, Inperioaren kontra. Baina, monarkikoek ez ezik, liberalek ere gogor kritikatu zuten: Espozek arbuatu zuen eta Torrente liberalarentzat Mina «genio maligno» bat izan zen. Hala ere, Minak behin eta berri aldarrikatu zituen hiru ideia hauek: errepublika, independentzia eta askatasuna. Hortik atera kontuak.

-Minarekin lotutako nola materiala bildu duzu 'Biba Mina! Kontuak eta kantuak' liburuan?

-Nola bizi izan ziren orduko gertaerak islatzen saiatu naiz, eta ez hainbeste nola izan ziren. Xabier Mina oso goiz bilakatu zen mito. Nafarroan, kasurako, Napoleonen kontrako gerrilletara joateko, jendeak «ir a Mina» esaten zuen. Bere borroken gorabeherak ere oso goiz hasi ziren zabaltzen sasoi hartako egunkarrietan, nahiz eta beti egia esan ez. Orduan 19 urte zituen. Mito guztiekin gertatu ohi denez, literaturak kanta eta istorio ugari eskaini dizkio. Gaztelaniaz ez ezik, ingelesez ere poema epiko luze bat eskaini zioten Estatu Batuetan. Gogoratu baino ez Lord Byronen laguna izan zela eta hari sor zaiola 'Minaren hiru-rehunak' olerkia.

-Zer dela eta 'Mina edo libertatea' haren biografia izan daitekeena izendatzeko?

-Minak bere sinaduraren ondoan beti idazten zuen esakune edo nahi bera: «Salud y libertad». Hortik dator kio ize-na liburuari. Ohikoa zen horrelako esaldiak idaztea. Fray Servandok, Minaren lagunak, adibidez, hauxe zioen umore handiz: «salud, garrapatas y bendición apostólica». Minak eta libertateak erabateko lotura dute. Robinsonek kontatzen duenez, errealistek insurjenteei erasotzen zietenean, hauek «Viva Mina y la libertad» erantzuten zieten oihuka.

Gerrilla-burua

-Hogeita urte baino ez zituela, frantsesen aurka ibili zen lehendabiziko aldiz gerrillari.

-Bi etsai baino ez zituen izan Xabier Minak: bata Napoleon Bonaparte, eta bestea, Fernando VII.a Borboikoa. Eta biei egin zien aurre: lehenengoari, Euskal Herrian barna gerrillari talde baten buru; eta besteari, Iruñean eta Mexikon gudaroste baten jeneral.

-Berrehun laguneko talde armatu baten buru zela hasi zen Minaren mitoa. Izan ere, laster zabaldu zen haren ize-